

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bakio

Aurkibidea

Udalerria: Bakio

Sarrera



Iparraldean, Bizkaiko golkoa eta Kantauri itsasoa ditu; mendebaldean, Lemoiz eta Maruri-Jatabe; ekialdean, Bermeo; eta, hegoaldean, Mungia. Herriaren erdigunea Basigo izeneko gunean dago; eta, herriaren gainerako azalera, hainbat baserrigune daude, hainbat auzotan banatuta: Artzalde, Bentalde, Elexalde, Gibelorratzagako San Pelaio, Goitisolalde, Urkizaurralde eta Zubiaurralde. Historian zehar, nekazaritza izan da herriaren jarduera ekonomiko nagusia; arrantzak garrantzi txikia izan du. 1950eko hamarkadatik aurrera, turismoa indarra hartzen hasi zen; izan ere, herrian aldaketak hasi ziren: etxebizitza-blokeak eraiki ziren, eta apartamentu eta etxe berriez bete zen hondartzako gunea. Bizkaiko Txakolinaren ekoizle nagusietakoa dugu Bakio.

Argazia: Tiia Monto

- **Biztanleak:** 2.105
- **Euskaldunak:** %57,43

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **18**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **18**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Kontxi Barturen Uriarte (1921)



Artzalde auzoko Goikolea baserrian jaio eta hazi zen. Aita bertakoa zuen eta ama Artetxe baserrikoa. 11 neba-arrebatatik hirugarrena izan zen eta ume-umetatik hasi behar izan zen etxeko zein baserriko lanetan, batik bat amaren alboan. Bost urtegez hasi zen auzoko eskolan eta beranduago herrikora joan ziren. Asko josi zuen eskola garaian eta denetarik egin izan du familiakoentzat. Gerra Zibilean, etxean eta auzoan militarrek izan zituzten eta oso ondo gogoratzen du garai hura. 12 urtera arte eskolan aritu arren, 10 urte bete orduko umezain aritu zen Bizkarganen "Bizgane". Familia berekoekin, 14 urtegez Gernikara joan zen neskame urte beterako. 20 urtegez San Pelaioko Ostiena baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan zen ordudanik etxea eta baserriko beherrak ondo gobernatuz.



Anartz Ormaza Ugalde (1981)

Arkitekturan lizentziaduna eta UEUko Arkitektura Sailburua.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Liburuak erdaraz, baina berba euskaraz

- **Hizlaria(k):** Barturen Uriarte, Kontxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** BKO-001/022
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:37:32. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
- **Laburpena:** Eskolako liburuak erdaraz zituzten, baina euren euskaraz egiten zuten. Liburuak Mungian erosten zituzten. Eskolak eta dotrina biak ziren garrantzitsuak. Denek ez zuten gaitasun bera ikasterako orduan.

Transkripzioa

- Ta maistrie be euskeldune?
- Portugaletekue ixen zan. Erdera be... erdera be eitten gendun. Erdera emoten gendun libruet. Libruet erdera emoten genduzen: "Historia Sagrada", "Historia de España", geografidxe, aritmetika, gramatika... Ta handik gora gehidxau ez dot... asko gehidxau ez dot ikesi nik.

- Hori dana libruetan?
- E?
- Libruetan eukitten zenduen?
- Libruiek eukitten [...]. Geuk erositte harek libruiek. Amak erosi zittuzen [Mungidxen]. Libruiek geuk eruen biher izeten genduzen. Esaten doskun zer dan ta eruaten genduzen, ta geuk erosten genduzen.
- Ta zer zan inportantiaua eskolie edo doktriñie?
- Bueno, bidxek eukiko zebeñ inportantzidxe; doktriñiek be euki zebeñ, ta eskoliek be bai. Ze, kapazidadie danak ez [deu] ataraten eskolan. Por ejemplo, nire sasoiñ, Teresa Ugalde ein zeen maestra. Maistra ein zeen. Eta [...] bere sekretaria ein zeen “en el ayuntamiento”.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Irurak-bateko hoditeria lehertu (BKO-001/002)

Bost urtegaz hasi zen eskolara. Irurak-bat zentraleko hodiak lehertu ziren justu eskolara hasi eta hurrengo egunean eta beraien baserriraino heldu ziren urak.

2. Eskolan josten (BKO-001/003)

Lehen jaunartzea zazpi urtegaz egin zuen. Bost urtegaz hasi zen eskolan eta josten ere irakatsi zien lehen jaunartzea egin orduko, ordurako arropak ere berak josi zituen-eta. Josten zelan ikasten zuten kontatzen digu. Auzoko eskolatik herriko eskolara etorri ziren. Bertan Portugaleteko doña Jazinta Arostegi izan zuten maistra. Berarekin ere asko ikasi zuen eta gustuko zuen.

3. Dozenaka izara jositakoa (BKO-001/004)

Bere izeko bat Buenos Airesera joan zen eta Kontxik eskolan josi zizkion bertara eroateko izarak-eta. Berak egindako izara horiek erakusketa batean aurkeztu zituzten. Ostean etxerako ere egin zituen izarak

4. Azukre-zakuekin alfonbrak egin (BKO-001/005)

Azukre-zakuekin alfonbrak zelan egiten zituen azaltzen du. Erakusketan erakusten zituzten.

5. Txamarra zelan egin (BKO-001/006)

Eskolan ikasi zuen josten umetan, denetarik egiten zuen. Behin, bere nebari txamarra bat josi zion eta zelan egin zuen kontatzen du pasarte honetan.

6. Galtzerdiak zelan egin (BKO-001/007)

Galtzerdiak egiten amak irakatsi zion. Atzamar bizkorrak izan ditu horretarako. Zelan egiten diren azaltzen du. Eskolako maistrak ez zuen bere amak egiten zituen moduan egiten.

7. Orratz motak (BKO-001/010)

Josi behar denaren araberrako orratzak erabili behar dira. Manolito eskekoa.

8. Errepublikan erlijioa eskolatik kanpo (BKO-001/012)

Errepublika garaian, erlijioagaz lotutako dena kendu zuten eskolatik: gurutzeak, dotrina, errezoak. Orduetik aurrera dotrina jasotzeko elizara joan behar izaten zuten.

9. Eskolako ikasgaiak; ahizpak goi mailako ikasketak (BKO-001/014)

Eskolan gramatika, Espainiako historia, "Historia sagrada", aritmetika... ikasgaiak zituzten. Bere ahizpak aparteko ikasketak ere egin zituen horretarako gaitasuna zuen-eta. Gerora Bilboko Udaleko idazkaria izan zen.

10. Eskolarako berogailua erosteko, umeko pezeta bana (BKO-001/017)

Eskoan ikasi zuen josten eta oso gustuko zuen gainera. Eskolako hizkuntza euskara zen. Neguan hotz egiten zuela-eta, berogailua erosteko ume bakoitzak pezeta bat eroan behar izan zuen. Berogailua berotzeko egurra ere etxetik eroan behar izaten zuten.

11. Eskolarako bata zuria (BKO-001/018)

Eskolarako bata zuria janzen zuten, egunero arropa bera. Zapatuetan eroaten zuten etxera garbitzen berriro astelehenerako prest izateko.

12. Gurasoen eztei-bidaia Portugaletera (BKO-001/019)

Bere etxean 11 ume izan ziren. Bere gurasoak ezkondu zirenean, izeko batenean jan zuten. Zaldiagaz eta gurdiagaz, zaldiarentzako belarra hartu eta Portugaleteko zubi esekia ikusten joan ziren bidaian.

13. Baserriko jeneroa etxez etxe saltzen (BKO-001/025)

Umetan baserriko jeneroa saltzen zuen Bakioko etxe desberdinetan: arrautzak, fruta, bainak... Batutako diru dena amari ematen zion. Ama zapatuetan Mungiara joaten zen astoa hartuta.

14. Umetako olgetak (BKO-001/027)

Umetako jolas batzuk azaltzen ditu: Trukeme, sokasaltoan, diaboloa, yo-yo...

15. Tabaka, panpinak, guridiak... (BKO-001/030)

Tabaka jolasten zuten. Ama Mungiara joaten zen baserriko jeneroa saltzen eta handik ekartzen zituen. Zelan jolasten zuten azaltzen du. Panpinak trapuzkoak izaten ziren. Bere amaren lehengusu arotz batek egurrezko gurdi bat egin zien.

16. Gizonaren sei anaia gerran (BKO-001/032)

Bere senarraren sei anaia egon ziren gerran. Horietako bat Elgetan desagertu zen, sekula ez zuten bere berririk izan. Nondik nora ibili ziren kontaktzen digu pasarte honetan.

17. Militarrei arropak garbitzen (BKO-001/033)

Bere senarraren sei anaia egon ziren gerran. Aurreko pasartean kontatzen duen moduan, hemen ere sasoi hartako bizipenen berri ematen digu. Bakion zeuden militarrei arropak garbitzen zizkieten eta horren truke dirua ematen zien.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com